

UDAL ORDENANTZA, ALTSASUKO UDAL MUGAPEAN ARRISKUGARRI GERTA DAITEZKEEN ANIMALIAK EDUKITZEAREN GAINEKOA

1. artikulua. Xedea.

Ordenantza honen xedea da Altsasuko udalerrian arautu eta aplikatzea abenduaren 23ko 50/1999 Legea eta hura garatzen duen martxoaren 22ko 287/2002 Errege Dekretua, arriskugarri gerta daitezkeen animaliak eta bestelakoak edukitzeko araubide juridikoari buruzkoa.

2. artikulua. Definizioa.

Animalia arriskugarritzat hartuko dira, 50/1999 Legean eta 287/2002 Errege Dekretuan aipatzen direnez gain, ondotik zehazten diren hauek:

a) Izatez basa direnetakoak izanik, etxeko gisa erabiliz, edo lagun egiteko, pertsoneri nahiz beste animalia batzuei lesioak eragin edo heriotza eman diezaieketen espezie edo arrazatakoak direnak, eta ondasunei kalte egin ahal dietenak, erasokorrek izan ala ez.

b) Honako arraza hauetako zakurrak: american staffordshire terrier, pitbull terrier, staffordshire bull terrier, Mallorcako hozkaria, Kanarietako hozkaria, fila brasileiro, mastin napoliarra, dogo argentinarra, bullmastiff, dobermann, tosa japoniarra eta rottweiler. Horietaz gain, oro har, arraza horien ondorengoak izanik, haien ezaugarri etnikoak dituztenak, eta haien gurutzatzeak.

c) Edozein espezieetakoak izanik, eraso eta defentsarako berariaz erakutsi edo heziak izan diren animaliak.

d) Edozein espezieetakoak izanik, behin bederen pertsonaren edo animalia bati eraso egin diotenak.

3. artikulua. Lizentzia.

1. Ordenantza honetan oinarriturik arriskugarri gerta daitezkeenen artean sartzen den animalia baten jabe edo edukitzaileak lizentzia berariazkoa izan beharko du. Animalia eskuratu baino lehen eskatu beharko da lizentzia, aurreko artikuluko a), b) eta c) ataletako kasuetan, eta d) ataleko kasuan, berriz, 5 eguneko epearen barrenean, animaliak pertsonaren bati eraso egin dionetik hasita.

2. Lizentzia eskuratzeko, honako baldintza hauek beharko dira:

a) Adinez nagusi izatea eta ez egotea ezindurik animalia behar bezala zaintzeko.

b) Ez izatea inoiz kondenatua honako delitu hauetakoren batengatik: homizidioa, lesioak, torturak, askatasunaren edo osotasun moralaren aurkakoak, sexu-askatasunaren eta osasun publikoaren aurkakoak, lotura talde armatu batekin edo droga salerosketarekin. Ildo beretik, arriskugarri gerta daitezkeen animaliak edukitzeko eskubideaz gabetua ez egotea epaile baten ebazpenagatik. Penalen ziurtagiriaren bidez frogatuko da.

- c) Animalia arriskugarriak edukitzearen inguruko arau-hauste larriengatik edo oso larriengatik zehatua ez izana, lizentzia aldi baterako eteteko zehapena izan ezik, hura osorik bete bada.
- d) Ahalmen fisikoaren eta gaitasun psikologikoaren agiria, arriskugarri gerta daitezkeen animaliak edukitzeko.
- e) Egiaztatzea erantzukizun zibileko aseguru bat egin izana, animaliek hirugarrenei egin ahal dizkieten kalteengatik, bederen urtebeteko iraupena eta gutxienez ehun eta hogeita mila (120.000) euroko zenbatekoa duena.
- f) Kasuan kasuko ordenantzetan onartzen den udal tasa ordaintzea.

3. Agiri guztiak erregistro orokorrean aurkeztu eta gehienez ere bi hilabetean ebatziko da lizentzia eskaera. Udal zerbitzuek txostena eginen dute eta horren ondoren Alkatetzaren ebazpen baten bidez luzatuko da lizentzia, edo bestela Tokiko Gobernu Batzarren erabaki baten bidez, Alkatetzak haren eskutan utzi badu.

4. Lizentzia eskatzera beharturik daude arriskugarri gerta daitezkeen animalien jabe edo edukitzaileak, baldin eta Altsasun bizi badira edo haiek salerosi nahiz trebatzeko jarduera Altsasun egiten bada. Orobat, animalia Altsasun gutxienez ere hiru hilabetez egon behar duenean ere lizentzia eskatu beharko dute arriskugarri gerta daitezkeen animalien jabe edo edukitzaileak.

Arriskugarri gerta daitezkeen animalien jabe edo edukitzaileak betebeharrak hori izatea alde batera utzirik, edozein herritarrek jakinarazi ahalko dio Altsasuko Udalarari mota honetako animaliak dituzten pertsonak badirela, Udalak legeen arabera bidezkoak diren urratsak eman ditzan.

4. Lizentziak 5 urteko iraupena izanen du, eta indarririk ez galtzeko beharrezkoa izanen da hura eskuratzeko eskatu ziren betebeharrak eustea denbora horretan guztian. Aitzinekoa ukatu gabe, Udalak egiaztatzen ahalko du, ofizioz edo salaketaren ondorioz, arriskugarri gerta daitezkeen animalien jabe edo edukitzaileak eusten ote dien lizentzia eskuratzeko betebeharrak, eta, ikuskapena egin ondotik, egiaztatzen bada arriskugarri gerta daitezkeen animalien jabe edo edukitzaileak ez duela betetzen baldintzetakoren bat, kontsideratuko da ez duela lizentziarik animalia edukitzeko eta hasiera emanen zaie behar diren legezko ekintzei.

4. artikulua. Arriskugarri gerta daitezkeen animalien jabe, hazle edo edukitzaileen betebeharrak.

Arriskugarri gerta daitezkeen animalien jabe, hazle eta edukitzaileak honako betebeharrak dituzte:

1. Arriskugarri gerta daitezkeen animalia edukitzeko lizentzia eskuratzeko, hilabeteko epean erosi denetik.
2. Ordenantza honetako 3. artikuluko 2. atalean aipatzen diren lizentzia eskuratzeko baldintzei eustea eta haiek galdu direla jakinaraztea.

3. Erosten dutenetik hilabeteko epean, erregistroan inskribatzea beren esku duten arriskugarri gerta daitekeen animalia bakoitza.

4. Udalari jakinaraztea animalia-aren lapurreta edo galera, gertatzen denetik bost eguneko epean, baita hura beste inori utzi edo saldu zaiola ere, edo hil egin dela, hamabost eguneko epean, identifikaziorako datuak emanda.

5. Animalia eskuratzeko unean, beste jabe baten izenean zentsaturik baldin badago, jabe berriak, eskuratu aitzin, arriskugarri gerta daitezkeen animaliak edukitzeko lizentziaren jabe izan beharko du, eta Udalari jakinarazi beharko dio, eskuratzen duenetik hasi eta bost eguneko epean, gehienez ere, animalia-aren titulartasunaren aldaketa gertatu dela.

6. Erregistroko datuetan gertatzen den beste edozein aldaketa ere jakinarazi beharko da, gehienez ere hamabost eguneko epean.

7. Animalia zikiratu edo antzutu dela jakinarazi beharko dute, hala jabeak eskaturik gertatzen denean nola administrazio nahiz epaitegiko agintariaren ebazpen edo aginduaren ondorioz egiten bada.

8. Arriskugarri gerta daitezkeen animalien erregistroan aurkeztu beharko dituzte, urtea amaitu baino lehen, albaitariaren urteroko azterketa egiaztatzen duen agiria, gaitasun psikofisikoarena eta penalena, eta mota honetako animaliak edukitzeak dakartzan arriskuetatik babesteko formalizatzen den aseguruaren nahiz erantzukizun zibileko sariaren kopia konpultsatuak.

9. Arriskugarri gerta daitekeen animalia bat Altsasura ekartzen bada, mugarik gabe edo hiru hilabetetik goitiko denbora baterako, jabea beharturik egonen da arriskugarri gerta daitezkeen animalien erregistroan sartzera. Animalia-aren egonaldia hiru hilabetetik beheitikoa bada, edukitzaileak egiaztatu beharko du bere ohiko bizilekuan betetzen duela arriskugarri gerta daitezkeen animalien gaineko araudia, eta higijene nahiz osasun aldetik eta herritarren segurtasunerako behar diren neurriak hartu beharko ditu.

10. Oro har, animaliak edukitzeari buruz zerikusia duten beharkizun guztiak bete beharko ditu.

Betebehar horietarako epea kasu bakoitzean zehaztuko da, eta, eperik zehazten ez bada, hamabost eguneko izanen da.

5. artikulua. Erregistroa.

Arriskugarri gerta daitezkeen animalien jabeek, erregistroan sartu nahi badituzte, Altsasuko Udalari jakinarazi beharko dizkiote honako datu hauek:

a) Animalia-aren espeziea.

b) Animalia-aren identifikaziorako zenbakia, hala behar badu.

c) Arraza. Gurutzatu ondoko lehenbiziko belaunaldikoa bada, jatorriko arrazak aipatuko dira.

d) Sexua.

e) Erreseina edo erreseina erdia.

f) Jaioteguna.

g) Animalia-aren ohiko bizilekua, zehazturik gizakiekin batera edo bestela biziko ote den, alegia, zaintza, babes edo aipatzen den halako beste xede baterako den.

h) Jabearen izena, helbidea eta NANA.

i) Animalia-aren haztegiaren edo sorlekuaren datuak.

j) Albaitari kolegiatu baten urteroko azterketak, haietan egiaztatuko baita animalia osasunez nola dagoen, bereziki arriskugarri bihurtuko duen eritasun edo nahasterik ez duela, ezta borroketan nahiz bestelako jarduera debekatuetan erabilia izatearen ondoriozko lesio edo orbainik ere.

k) Hezi duten zentroko datuak, halakorik bada.

l) Eraso kasuak.

Datu horiek denak Erregistroan sartuko dira eta aldaketarik gertatzen bada, jabeak haren berri eman beharko du, erregistroan sartu behar den aldaketa gertatu ondoko hamabost eguneko epean, eraso kasuetan izan ezik, halakoetan berehala jakinarazi behar baita.

Albaitaritzako klinika, kontsultategi eta ospitaleek erregistro liburu bat eduki beharko dute; hartan paratu beharko dituzte artikulu honetan aipatzen diren datuak, arriskugarri gerta daitezkeen animaliak udal erregistroan duen zenbakiarekin batera.

6. artikulua. Segurtasun neurriak.

1. Eremu publikoetan, higiezin kolektiboetako eremu komunetan, garraio publikoetan eta, oro har, erabilera publikorako diren toki eta eremuetan, ordenantza honetan aipatzen diren zakurrak metro bat baino gutxiagoko luzera duen katearekin edo uhal luzaezinarekin lotuta eta muturrekoa jantzia dutela (homologatua eta zakurraren arrazari egokitua) eramanen dira. Inoiz ere ezin izanen dira eraman pertsona bakoitzeko zakur hauetako bat baino gehiago eta adin txikikoek ezin izanen dituzte inola ere eraman.

2. Arriskugarri gerta daitezkeen zakurren instalazioek ezaugarri hauek izan beharko dituzte, animaliak handik atera eta hirugarrenei kalterik egin ez diezaieten:

a) Hormek eta hesiek behar adinako altuera eta sendotasuna izan beharko dute. Orobat, tinko egon beharko dute, animalia-aren pisuari eta presioari eusteko.

b) Instalazioetako ateez inguruko gainerakoa bezain sendoak eta eraginkorrak izan beharko dute, eta haien diseinuaren bidez saihestu beharko da animaliek beraiek segurtasun mekanismoak erauzi edo ireki ahal izatea.

c) Barrutiak behar bezala seinalatua egon beharko du, mota horretako zakurrak daudela ohartarazi beharrez.

3. Altsasuko Udalak, dagozkion udal zerbitzuen bidez, egokiak iruditzen zaizkion neurriak hartuko ditu herritarrek edozein salaketa jarritakoan, animaliek eremu publikoan nola pribatuetan beldurra, estresa, jazarpena eta abar eraginez gero.

Bildutako zakurra berreskuratzeko, jabeak 24 orduko epea izanen du jakinarazten zaionetik. Behar baldin bada, txertoaren egutegia eguneratzera beharturik dago eta udal diruzaintzan sortutako gastuak ordaintzera, baita gerta daitezkeenak ere. Bestelakoan, Nafarroako Gobernuak Zakurtegira eramanen da, eta bertan eduki legeak agintzen duen epea bete arte.

4. Udalaren osasun zerbitzuek eraman eta konfiskatuko dituzte behin eta berriz arau-haustea egin eta eragozpenak sortzen dituzten animaliak. Agintaritza eskudunak eman beharko du animalia etxetik ateratzeko eta konfiskatzeko agindua, eta animaliak Udalaren esku geldituko dira. Zakurra zuzen identifikatua badago, jabeak gaztigatuko zaio eta hark, biltzeko, 24 orduko epea izanen du jakinarazten zaionetik. Behar baldin bada, txertoaren egutegia eguneratzera beharturik dago eta udal diruzaintzan sortutako gastuak ordaintzera, baita gerta daitezkeenak ere. Bestelakoan, Nafarroako Gobernuak Zakurtegira eramanen da, eta bertan eduki legeak agintzen duen epea bete arte.

5. Abandonatuak dauden zakurrak bildu egingen ditu Udalaren bilketa zerbitzuak eta hogeita lau orduz zainduko. Epe hori iragan eta jabeek ez badituzte animaliak berreskuratu edo, haien baimena izanik, ez bazaizkie hirugarrenei ematen, animaliak biltzeko Nafarroako Gobernuaren zerbitzuaren esku geldituko dira.

Nafarroako Gobernuak Zakurtegiak egungo legeriari jarraituko dio, animaliak hil, esleitu edo gordetzeari dagozkion afera guztietan.

Nafarroako Gobernuaren zakurtegiari sartzen diren zakurren elikadura eta zainketa gastuak jabeen edo hartzaile berrien kontura izanen dira. Dagokiena ordaindu gabe ezin izanen dute animalia eskuratu.

Beren jabe edo edukitzaileen etxetik kanpora bakarrik ibiltzen diren animaliak ustez abandonatuztat joko dira eta udal zerbitzuek atzematen ahalko dituzte. Horien ardura izanen da animaliekin zer egin, araz kanpoko kasuetan, inork erreklamatzeko ez baditu lege ezarritako epean (24 ordu).

7. artikulua. Beste arau batzuk.

1. Ordenantza honetako 2. artikuluan sartzen ez diren zakurrei arau hauek aplikatuko zaizkie:

a) Adinagatik beharturik badaude, zakur guztiek txertaturik eta txip bidez identifikaturik egon behar dute.

b) Hiri lurzoruan (Udal Planak horrela sailkatu duena) zakur guztiek uhalarekin loturik ibili behar dute, luzagarria izan daitekeena, gehienez ere bost metro egiteraino. Orobat, gidatzen edo laguntzen dituen pertsonarekin joan beharko dute beti.

2. Zakur batek edo beste edozein animaliak bide publikoan, plazetan, espaloietan, lorategietan edo beste edozein eremu publikotan kaka egiten badu, paseatzen duenaren egin beharra da hura istantean garbitzea.

3. Debekaturik dago arriskugarri gerta daitezkeen animaliak, zakurrak, zaldiak, ardiak, ahuntzak eta arrazaz edo espeziez horien gisakoak direnak ikastetxeetara, aisia edo josteta-lekuetara, parke publikoetara eta eraikin publikoetara sartzea.

4. Halako batean lotu gabe eta laguntzailerik gabe dauden zakurrak bildu eta animaliak babesteko entitate baten eskuetan utziko dira.

5. Zakurrak hirugarrenei egiten ahal dizkien kalteak ordainduko dituen erantzukizun zibileko aseguruak kontratatzea aholkatzen zaie zakurren jabeei.

8. artikulua. Arau-haustekak.

Abenduaren 24ko 50/1999 Legean aipatzen direnez gainera, honako hauek ere arau-hauste administratibo larritzat jotzen dira:

1. Arriskugarritzat hartzen den animalia lotu gabe, edota muturrekorik gabe edo adingabe batek daramala erabilera publikoko eremuetan edo toki publikoetan barna ibiltzea.

2. Uztea, esku hartuz edo esku ez hartzeagatik, arriskugarri gerta daitezkeen animaliak eraso egin diezaien pertsonari edo beste animalia batzuei, edota kalte, bestela, edozein ondasuni, hala eremu publikoan nola leku pribatuetan, erasoaren unean edo aurretik halakorik ez gertatzeko behar diren neurriak hartu gabe.

3. Altsasuko Udalaren aginduren bat zehazten den epetik kanpo betetzea.

4. Ordenantza honetan ezartzen diren obligazioak epetik kanpo betetzea, non eta ez-betetze hori ez den hartzen 50/1999 Legearen aurkako arau-haustetzat.

Arau-hauste administratibo arintzat hartzen da ordenantza honetako 7. artikulua barreneko edozein ataletan xedatzen dena ez betetzea.

9. artikulua. Zehapenak.

50/1999 Legean eta Ordenantza honetan ezarritako arau-haustekak zehatuko dira 50/1999 Legean edota horren ordean indarrean legokeen arauan ezarritako isunekin.

Erantzulea izanen da arriskugarri gerta daitezkeen animalia jabea edo edukitzailea, hau da, esku hartzeagatik edo ez hartzeagatik arau-haustean parte hartu duena.

Zehapenak ezartzerakoan honako irizpideak hartuko dira kontuan, isunen zenbatekoa graduatzeko eta zehapen osagarriak ezartzeko:

-Egindako arau-haustekak gizartean zer eragin izan eta zer kalte egin duen.

-Irabazteko asmo bidegabekorik izan den eta arau-haustean zer etekin atera den.

-Arau-haustekak errepikatu edo haietan berrerori ote den.

Berriz ere araua hautsi dela ulertuko da, baldin eta animalari edo animalia-aren edukitzaileari zehapena ezarri bazaio bi aldiz gutxienez, animaliak edukitzeari buruzko araudia hausteagatik.

Zehapena mailarik gorenean ezarriko da urtebete natural berean arau-haustea berriz gertatzen bada.

10. artikulua. Datu pertsonalen babesa.

Datu pertsonalei buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera, aditzera ematen da:

-Ordenantza honek indarra hartzen duenean, datu pertsonalen fitxategi bat izanen dela, arriskugarri gerta daitezkeen animalien jabeak edo edukitzaileak erregistratzeko.

-50/1999 Legean Udalei ematen zaizkien beharkizunak Altsasuko Udalak betetzea du helburu. Fitxategia Altsasuko Udalak bakarrik erabiltzen ahalko du.

-Ordenantza honetan aipatzen diren datu pertsonalak ematea nahitaezko betebeharra da.

-Ordenantza honetan aipatzen diren datu pertsonalak ematen dituen pertsonak onartzen du haiek erabil daitezkeen artikulua honetan zehazten den xedearekin.

-Datu pertsonalak emateari uko eginez gero, artxibatu egingen da lizentzia espedientea.

-Artxiboan erregistraturik dauden pertsonak aukera izanen dute sartu, zuzendu, deuseztu eta kontra egiteko eskubideak erabiltzeko.

-Datuak deuseztatzeko eskabidea aurkeztuz gero, galdu egingen da animalia arriskugarria edukitzeko lizentziari eusteko eskubidea.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Bakarra.-Arriskugarri gerta daitezkeen animalia bat lehendik dutenek hiru hilabeteko epea izanen dute, ordenantza honek indarra hartzen duenetik, aipatzen diren baldintzak bete eta dagokien lizentzia eskuratzeko.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenbizikoa.-Ordenantza honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Bigarrena.-Ordenantza honetan aurreikusi gabeko orotan aplikatuko da Arriskugarri gerta daitezkeen animaliak edukitzeko araubide juridikoari buruzko abenduaren 23ko 50/1999 Legean eta hura garatzen duen martxoaren 22ko 287/2002 Errege Dekretuan xedatutakoa, baita arautzen diren gaietan aplikatzen ahal diren xedapen guztiak ere, Udalaren erabakiak baino maila handiagokoak badira.

I. ERANSKINA

Lizentzia eskatzeko inprimakia

ARRISKUGARRI GERTA DAITEZKEEN ANIMALIAK EDUKITZEKO LIZENTZIAREN ESKAERA

Eskatzailearen datuak:

Izen-deiturak:

Helbidea: Telefonoa:

Herria: Probintzia:

Nortasun agiriaren zenbakia:

Honako hau ordezkatzuz:

Eskaera:

Arriskugarri gerta daitezkeen animalia edukitzeko administrazio lizentzia.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa Sarrera

Sinadura Eguna

Datuen babesa: Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 1999ko abenduaren 13ko Lege Organikoan ezarritakoa betetzeko, aditzera ematen zaizu inprimaki honetako datu pertsonalak Administrazio honek dituen eskumenak baliatzean baizik ez direla erabiliko eta Iruñeko Udalaren datu basea osatzen duten fitxategiei batuko zaizkiela. Fitxategietan sartu, datuak zuzendu eta ezabatzeko eta horien aurka jotzeko eskubideak Iruñeko Udalarik zuzendurik erabiltzen ahalko dituzu, Erregistro Orokorrera jota (Garcia Ximenez, 36. 31800, 31001 Altsasu).

II. ERANSKINA

Lizentzia eskuratu dela frogatzen duen txartela

LIZENTZIA ZENBAKIA LUZATZE DATA NOIZ ARTE BALIOZKO

TITULARRA (Deiturak eta izena)

HELBIDEA (kale, plaza, zenbakia, solairua, posta kodea)

EGIAZTAGIRIA

Sinadura eta zigilua

Sinadura: Alkatea,

Altsasun, 20.....(e)ko aren (e)an.